



Ibiltzen garenean oinatzak uzten ditugu; energia, ura, elikagaiak, jantziak, eta abar kontsumitzen ditugunean ere aztarna uzten dugu, eta ingurumenean kaltea eragiten du aztarna horrek. Baliabideen kontsumoa handia bada, ingurumenean uzten dugun aztarna ere handia izango da. Geure kontsumoaren aztarna ekologikoa murriztu dezakegu eguneroko ekintzetan arduratsuak izanez, hau da, bakoitzak gauza sinpleak modu arduratsuan egiten baditugu, guztion artean aztarna ekologikoa murriztuko dugu, eta horrekin baita ingurumenarekiko kalteak ere.

ENERGIAREN KONTSUMOA UDAL-ERAIKINETAN

1 - UDAL-ERAIKINETAKO ENERGIA KONTSUMOA

Taldeka edo gelaka banatuta, joan zaitezke te udal-eraikinetara (liburutegia, kiroldegia, igerilekua, ludoteka...) bertako energia-kontsumoari buruzko informazioa jasotzera. Ondorengo taulan dituzue bertako arduradun edo langileari egin diezaizkiokezen galderak.

GALDERAK	Iturri-Txiki ludoteka	Txiki-Txoko ludoteka	Enparan dorretxea	Igerilekua	Kiroldegia
Zenbat ordutan dago irekita egunean?					
Asteko zenbat egunetan irekitzen da?					
Argiak detektagailuen bidez pizten al dira?					
Kontsumo baxuko bonbillak erabiltzen al dira?					
Zer energia mota erabiltzen du berogailuak (gas naturala, argindarra...)?					
Aparailu elektrikoak eta argiak itzaltzen al dira etxera joaterakoan?					
Neguan berogailua itzaltzen al da etxera joaterakoan?					
Zenbat gradutan egoten da programatuta berogailua?					
Eraikin honetan, zerk kontsumitzen du energia gehien?					
Energia aurrezteko neurririk hartzen al da? Zein?					
...					

AZTARNA EKOLOGIKOA: ENERGIA ETA URA

2. UDAL ZERBITZUETAKO ENERGIA KONTSUMOA AZTERTZEN

Jarraian duzuen taulan udal-eraikinetako energia kontsumoa duzue (kwh-tan).

UDAL-ERAIKINETAKO ENERGIA KONTSUMOA (2012 URTEA)	ARGINDARRA GUZTIRA KWH	GAS NATURALA GUZTIRA KWH
KALE-ARGIZTAPENA	2.029.305	
UDAL-ERAIKINAK	705.033	746.414
- Enparan dorretxea	40.617	62.112
- Txiki-Txoko ludoteka	2.172	21.518
- Iturri-Txiki ludoteka	20.137	
- Besteak (ikastetxeak, haurtzaindegiak, jangelak...)	642.108	662.784
KIROL-INSTALAZIOAK	701.842	1.980.822
- Igerilekua	508.563	1.728.466
- Kiroldegia	93.148	
- Besteak (frontoiak, futbol-zelaia)	109.131	252.356
BESTEAK (hilerria, ponpaketak, semaforoak...)	233.524	
GUZTIRA (kwh)	3.678.704	2.727.236

a) Taulako datuetan oinarrituta, egitzazue grafikoak, bat argindarrarena eta bestea gas naturalarena. Horretarako gris ilunez margotutako datuak bakarrik erabil ditzakezue.

⇒ Argindarra non kontsumitzen da gehien?

⇒ Eta gas naturalaren kontsumoa, non da altuena?

3. KIROL-INSTALAZIOETAKO ENERGIA KONTSUMOAN SAKONDUZ

KIROL-INSTALAZIOETAKO ENERGIA KONTSUMOA (2012 URTEA)	ARGINDARRA (KWH)	GAS NATURALA (KWH)
Igerilekua	508.563	1.728.466
Kiroldegia	93.148	
Besteak (frontoiak, futbol-zelaiak)	109.131	252.356
GUZTIRA (kwh)	710.842	1.980.822

KIROL PATRONATUKO ERABILTZAILEEN DATUAK 2012 URTEA		
Kiroldegia	Igerilekua	GUZTIRA
44.180	173.018	217.198

Begiratu arretaz bi taulak. Lehen taulan Kirol-instalazioetan 2012an kontsumitutako argindarraren eta gas naturalaren datuak dituzue. Bigarreanean, berriz, instalazio hauek erabili zituzten pertsonen kopurua.

AZTARNA EKOLOGIKOA: ENERGIA ETA URA



a) Erabiltzaile guztiak kontuan hartuta, kalkula ezazue zenbat kwh kontsumitu zituen guztira pertsona bakoitzak egunean (kwh/pertsona/egun).

Erabiltzaile bakoitzaren batezbesteko eguneko kontsumoa

4. ETXEETAKO ETA KIROL-INSTALAZIOETAKO KONTSUMOAK ALDERATUZ

Azpeitian, etxeetako kontsumoa (argindarra+gas naturala) batezbeste 7,33kwh pertsona/egun-ekoa da.

a) Kirol-instalazioetako kontsumoa etxeko kontsumoarekin alderatuz, nolakoa da, handia ala txikia?

Handia

Txikia

b) Handia dela iruditzen bazaizue, zerbait egin al daiteke kontsumoa murrizteko? Nork egin beharko luke, Udalak ala guk?

c) Gure etxeetako kontsumoa murrizteko zerbait egin al daiteke? Nork egin beharko luke?



Gogoratu, energia kontsumoa murrizten badugu gure kontsumoaren aztarna ekologikoa murriztuko dugu.

